

ADIO, JONAS

Juan Kruz Igerabide

Ilustratzailea: Mikel Valverde

Aizkorri, Bilbo, 2007

Gero arte, Jonas.

1998an Igerabidek eta Valverdek hiru urteko mutikotxo baten istorio bitxia azaldu ziguten, hozkailuaren dardararen aurrean gogoeta egiten zuen mutiko hura Jonas zen eta urte gutxitan klasiko bat, pertsonaia ezaguna bilakatu da gure letretan.

Adio, Jonas hau ez da –ez du zergatik izan behar- protagonista horren azken obra, izenburuak kontrakoa adieraz badezake ere. Alde horretatik paratestuak (Genettenen arabera) okerrera eraman gaitzake; ez da Jonasen amaiera, ez horixe... baina izan zitekeen.

Izeba Pauliren urtebetetze eguna da eta Jonasek opari bat eman nahi dio; amak, ordea, igandean emango diotela azaltzen dio mutikoari. “<Igandean... ba, ba... ez. Ez da itxura>, pentsatzen du Jonasek, buruari hazka eginez, <Gaur behar du>” (7. or.) pentsatzen du Jonasek, eta arratsaldean salto batean izebaren etxera joan eta oparia ematea bururatzen zaio.

Jonas larri ipuinean gertatu zen bezala, hemen ere egoera korapilatzen da eta momentu bateko kontu sinplea zena une larria bilakatzen da. Jonas, galduta, kaleetatik ibiliko da oinez, korrika, autobusean... norabide garbirik gabe, eta hasierako mutiko alai eta animosoa, etsipenak jotako mutiko bihurtzen da; egindakoaz poz egotetik damutzerara pasatzen da Jonas, tartean beldurra eta bakardadea ezagutu dituelarik.

Idazleak gertakariak eta Jonasen gogoetak tartekatzen ditu irakurlea protagonistarekin identifikatzea lortuz. Horrela Jonasen pena sentituko dugu oparia ezin diolako eman izebari, eta baita bat etorri Jonasekin izebaren etxeraino joan-etorri azkarra bururatzen zaionean. Ekintza eta bizitasun handiko pasartea da: “Ama baino azkarrago itzuli nahi du Jonasek. Salto batean jaisten ditu eskailerak, kutxatxoa poltsikoan duela, salto batean irteten da kalera, eta ziztu bizian doa espaloian zehar. Kale bat, beste bat... lasterka, tope.” (12. or.).

Galdu ondoren, autobus gidariarengatik ihesi doala, bizitasunetik geldotasunera pasaten dira Jonasen animua eta narrazioaren erritmoa: “Jonasen bihotza bularretik irten beharrean dago.

Ezin du arnasarik hartu. Ezin du, ezin du, ezin gehiago.” (24. or.).

Sentimendu, identifikazio, irakurketa horren eboluzioan testua bezain garrantzitsua da irudietan ageri dena; irudi guztia betetzen duen hasierako Jonas irribarretsuaren ondoren nortasunik gabeko pertsonak ageri dira (hankak bakarrik marrazten dizkie Mikel Valverdek), baina Jonas zenbat eta galduago egon orduan eta txikiagoa ageri zaigu eta orduan eta jende gehiago inguruan, berari begira. Alde honetatik guztiz txalogarria da Valverdek eginiko lana, ohi bezala ederki islatzen baitu narrazioaren tonua eta istorioaren nondik norakoa.

Istorioren amaiera zoriontsuak herri ipuinak ekartzen dizkigu gogora eta ipuin hauen azterketa psikoanalitiko (B. Bettelheimen teorien arabera). Grimm anaien Hansel eta Gretel ipuinean bezala, hemen ere protagonista galdu egiten da baso modernoan –hirian-, eta herri ipuinean jazo bezala, hemen ere amaiera zoriontsuak irakasbidea eskaintzen digu, bai eta beldurrei aurre egiteko tresna berri bat ere. Horrez guztiaz gain, ipuinari amaiera ematen dion Jonasen gogoetak, “<Ez da hain erreza salto batean itzultzea>”, lehenengo obrarekin, *Jonas eta hozkailu beldurtia* ezagun harekin egiten du jolas,

orduko hartan ere bakarrik geratu zenean (etxean, kasu hartan) “banator salto batean” esanez joan baitzen ama... eta asko berandutu zen. Oraingo honetan, aldiz, Jonas da salto batean itzuli nahi zuena.

Izeba Pauliri eman nahi zion oparia Jonasek, eta kostata, zenbait abentura bizi ondoren, oparia ematen dio. “Adio, Jonas (...) Eskerrik asko opariagatik” (35. or.) dio izebak; guk, ordea, honako hau: “Eskerrik asko, Jonas, gero arte”.